

Irurtzunen, bi mila eta bederatziko urtarrilaren hamalauan, arratsaldeko zortziak direnean, Ezohiko eta Premiazko Bilkura egitearren Irurtzungo Udaleko Udalbatza, legeak agintzen duen moduan deituta, Batzar-gelan elkartu da Juan Jose Iriarte Vitoria alkate-lehendakaria buru dela. Bertan izan dira ondoren aipatzen diren zinegotziak:

Francisco Goicoechea Arbizu  
Jose Javier Recalde Maestre  
Saray Ongay Garcia  
Jose Luis Viñas Estudillo  
Xabier Unanua Goicoechea  
Luis Enrique de la Calle Moreno  
Maria Nieves Uterga Juango  
Eduardo Murugarren Frances  
Francisca Arruabarrena Quintana

Eta idazkari naizen hau, Santos Iragui Hualde.

Ezin etorria adierazi du Jose Peinado Cuestak

Bilkurari hasiera emanda, udalburuak bilkuraren premiazkotasuna justifikatu du esanda Estatuko Toki Inbertsioetarako Funtsaren kargura finantzatuko diren inbertsioak onartu beharra daudela; eskaera hil honen 24a baino lehen izapidetu behar da ohikoa ez den, eta hainbat zailtasun dituen prozedura bidez.

Azalpena emanda, bilkura egitea premiazkoa ote den bozkatu da, eta aho batez onartu da.

#### **AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA**

Bilkurari hasiera emanda, udalburuak deialdiarekin batera banatu den 2008ko abenduaren 22an egindako Bilkuren Aktari zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion galdetu du. Oharrik egin ez zaionez, aho batez onartu da.

#### **ALKATETZAK HARTUTAKO ERABAKIEN IRAKURKETA**

2008ko abenduaren 23az geroztik Alkatetzak eman dituen Ebazpenak irakurri dira eta, honenbestez, zinegotziak jakinaren gainean daude.

## **TOKI INBERTSIOETARAKO ESTATUKO FUNTSERAKO PROIEKTUAK**

Toki Inbertsioetarako Estatuko Funtsaren kargura finantzatzeko inbertsioak onartzeari buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta Hirigintza, Etxebizitza, Partzuergo eta Ingurumen Batzordeak 2009ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran onartutako proposamena aztertuta, honako hau erabaki da Iriarte, Goicoechea, Recalde, Viñas, Unanua eta De la Calle jaunen eta Ongay eta Uterga andreen aldeko botoarekin (Murugarren jaunak eta Arruabarrena andreak aurkako botoa eman dute): "udal ekipamendurako eraikina" izeneko inbertsio-proiektua Toki Inbertsioetarako Estatuko Funtsaren kargura finantzatzeko aurkeztea. Proiektuaren aurrekontua 389.374,00 eurokoa da -BEZ barne-, eta, aurreikuspenen arabera, esleipena 2009ko martxoan egingen da. Lanak 2009ko apirilean hasiko dira, eta urte bereko urrian akituko dira. Lanean 8 langile jardungo dira.

Jarraian, Murugarren jaunak bere eta Arruabarrena andrearen proposamenaren aurkako botoa azaldu du. Horien iritziz, nerabeek (12-16 urte) dute lokal-premia handien, eta, beraz, horiei zuzendutako zentro bat eraikitzearen aldekoak dira, Toki Inbertsioetarako Estatuko Funtsaren kargura. Halaber, esan du adinaren ezaugarriak kontuan hartuta, ez dela komenigarria lokalak bestelako kultura-hornidurak izatea. Beren iritziz, beraz, kokapen egokiagoa litzateke "Plaza de la verdura" izeneko; horretan, behe-solairuko eraikina eraiki daiteke.

## **ENPLEGURAKO LAGUNTZAK ESKATZEA**

Nafarroako Gobernuari langabezian dauden pertsonak kontratatzeko laguntzak eskatzeari buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta, halaber, Hirigintza, Etxebizitza, Partzuergo eta Ingurumen Batzordeak 2009ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran onartutako proposamena aztertuta, aho batez erabaki da:

1. "Udal-eraikinak hobetzeko lanak, herri-altzariak egokitzeko lanak, eta kaleetan traba arkitektonikoak deuseztatze lanak" izeneko proiektua onartzea.
2. Nafarroako Enplegu Zerbitzuari "Udal-eraikinak hobetzeko lanak, herri-altzariak egokitzeko lanak, eta kaleetan traba arkitektonikoak deuseztatze lanak" izeneko proiekturako diru-laguntza eskatzea.

## **PALESTINAREKIKO ELKARTASUNARI BURUZKO ALKATETZAREN PROPOSAMENA**

Udalburuak proposatuta, Palestinarekiko ondorengo elkartasun-proposamena onartu da Iriarte, Goicoechea, Recalde, Viñas, Unanua eta Murugarren jaunen eta Ongay eta Arruabarrena andreen aldeko botoarekin; abstentziora jo dute De la Calle jaunak eta Uterga andreak:

“Ez da gerra, ez daude armadak borrokan. Sarraskia da. Ez da errepresalia, ez dira Israelen eroritako koheteak (eskuz eginak); hauteskundeak hurbil izateak piztutako erasoak baizik. Ez da su-etena bertan behera utzi izanari emandako erantzuna, su-etena indarrean egon den bitartean Israelgo armadak areago gogortu baitu Gazaren gaineko blokeoa, eta etengabe eraso du Gaza; ustezko su-etenaldian 256 hildako eragin ditu.

Ez da indarkeria piztu izana. Eraso planifikatua da, okupatzaileek aspaldi iragarria. Zisjordaniaren okupazioak egunero dakarkien infernua eta setio-egoeraren ondorioz Gazan bizi duten gosean bizi diren palestinarren erresistentzia-borrontea suntsitzeko estrategian beste pauso bat da.

Ez da nazioarteko diplomaziaren porrota. Okupatzailearekin duten konplizitatearen beste froga bat da. Eta kontua ez da soilik erreferente moral eta politikorik batere ez duen, baina gatazkan Israelen aldeko parte den Estatu Batuena, kontua Europa da, Europako herrialdeen diplomaziaren ahuldade, anbiguotasun eta hipokresia etsigarria.

Gazan gertatzen ari denetik lotsagarriena da gertatzen ari den hori gertatzea ezer gertatu gabe. Israelen zigorgabetasuna ez da zalantzan paratzen. Nazioarteko legeria, Genevako Hitzarmeneko zehaztapenak, eta gizalegearen oinarri-oinarrizko arauak etengabe bortxatzeak ez die ondoriorik batere sortzen. Aitzitik, badirudi hori guztia saritu egiten dela: lehenetsuzko merkataritza-akordioak sinatuz, edo Israel Ekonomi Lankidetzak eta Garapeneko Erakundearen sartzeko proposamenak eginez. Horregatik guztiarengatik Irurtzungo Udalak honako hau adierazi nahi du:

- .- Eraso horren biktima izan direnekiko elkartasuna, eta dolumina.
- .- Gazan palestinarren aurka egiten ari diren sarraskia irmoki gaitzesten dugu, ageri-agerian geratu baita Israelgo Estatuaren izaera genozida eta arrazista.
- .- Israelek Gaza kontzentrazio-eremu erraldoi, munduko zero zabaleko presondegirik handien bihurtu izana salatzen dugu.
- .- Gobernuak salatzen ditugu, Espainiakoa barne, egoera onartu eta okupatzaileei laguntzen dietelako.

.- Halaber, Gazako herritarren aurkako krimenak, hau da gizateriaren aurkako krimenak eta genozidioa, salatzen ditugu.

.- Espainiako gobernuari, nazioarteari, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluari eta Europar Batasunari exijitzen diogu premiaz esku har dezatela, eta behartu dezatela Israelgo Estatu palestinarren eta Hamaseko gobernu legitimoaren aurkako bereizi gabeko eraso bertan behera uztera.

.- Israelgo gobernuo kideen kontra nazioarteko prozesu judiziala hastea exijitzen dugu, gizateriaren aurkako krimenengatik eta genozidioagatik, eskubide zibilen nazioarteko ituneko Genevako III. Eta IV Hitzarmenak urratzeagatik.

Horregatik guztiarengatik, honako hau erabaki du:

• Nafarroako Gobernuari eskatzen diogu Espainiako Gobernuari honako hauek galdegitea:

• Israelgo Estatuarekin dituen harreman diplomatiko eta ekonomikoak etetea, Israelek Gazako zerrendaren aurkako eraso militarra eta blokea bertan behera utzi arte.

• Israel lurralde okupatuetatik alde egiteari, eta palestinarrek beren lurraldeetara itzultzeko eta nazio-autodeterminaziorako duten eskubideari buruzko NBERen 242 eta 338 ebazpenak bete ditzala exijitu diezaiola.

• Nazio Batuen barnean gatazkan tartean sartuko diren begiraleak bidaltzea eska dezala, Gazako zerrendaren aurkako eraso eta blokea amaituko direla bermatze aldera.

• Erabaki hau Nafarroako Gobernuo Lehendakaritza Departamentura, Madrilgo Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritzara, eta prentsara igortzea.”

Uterga andreak UPN udal-alderdiaren bozka azaldu du. Abstentzioaren alde egin dute indarkeria mota guztien kontra, eta oraingo honetan zibilak hiltzearen kontra daudela esateko. Hala ere, esan du gatazka horrek baduela beste parte bat ere, eta horri ere elkarriketaren eta armak uztearen aldeko jarrera eskatu behar zaiola. Horrez gain, esan du badirela beste gatazka larri batzuk ere, batez ere Afrikan, eta hor ere nazioartearen parte-hartzea eskatu beharko litzatekeela.

Murugarren jaunak azpimarratu nahi izan du palestinarrek Hamas aukeratu zutela demokratikoki honek goberna zezan. Jarraian testua irakurri du, bere iritziz onartutako proposamenaren sarreraren osagarria: “Eta zein lizun diren zenbait politikariren hitzak okupatzaileari eta okupatuari, setiatzaileari eta setiatuari, borroari eta biktimari erantzukizun berberak eskatzen dizkietenean. Zein zantarra zanpatua eta zanpatzailea berdindu nahi dituen distantziakidetasuna. Mintzoa ez da

hobengabea. Hitzek ez dute hiltzen, baina krimena justifikatzen laguntzen dute. Baita iraunarazten ere.”

### **NAFARROAKO KUTXAREN “ZUK AUKERATU, ZUK ERABAKI, 2009” PROGRAMARAKO PROIEKTUAK AURKEZTEA**

Nafarroako Kutxaren "Zuk aukeratu, zuk erabaki, 2009" programan proiektuak sartzeko eskaerari buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta, halaber, Hirigintza, Etxebizitza, Partzuergo eta Ingurumen Batzordeak 2009ko urtarrilaren 12an egindako bilkuran onartutako proposamena aztertuta, aho batez onartu da arestian aipatutako programan haur-parke bat (37.295,00 euroko aurrekontuarekin) sartzea eskatzea.

### **EUSKARA ARLORAKO DIRU-LAGUNTZAK**

Euskara-arloan hainbat diru-laguntza emateari buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta, halaber, Euskara Batzordeak 2008ko abenduaren 15ean egindako Bilkuran onartutako proposamena aztertuta, ondoren aipatzen diren diru-laguntzak ematea erabaki da aho batez, 2008ko Aurrekontuko 4510.48201 partidaren kargura:

- 573,00 euro Atakondoa ikastetxeari, Euskaraz Mintza proiekturako.
- 620,00 euro Aizpea Euskara Taldeari, Irurtzuni buruzko berriak euskaraz aurkezteko blog bat sortu eta horri jarraipena emateko.

Diru-laguntzak onartuta, Iriarte jaunak azaldu du Irurtzun Bai – Nafarroa Bai udal-taldeak bigarren diru-laguntza horren aldeko botoa eman duela 2008ko gastuetan sartuta dagoelako, baina aurrerantzean, hau da 2009tik aitzin, herriari buruzko berriak euskaraz emateko udalaren web orria erabiltzea proposatuko duela adieraziko du.

### **BATZORDEEN INFORMAZIOA**

Ogasuna, Industria, Langileak eta Barne Eraentza.

Udalburuak jakinarazi du Baztango Udalak proposamen bat helarazi diola Irurtzungoari Nafarroaren konkistaren 500. urteurrena dela-eta. Esan du bilkura honen eguneko aztergaiak zehaztu ondotik jaso zuela, eta honako hau Ezohiko bilkura izanik, ez dela zilegi proposamen hori orain aztertzea, baina berak pertsonalki bat egiten duela, eta gainerakoei ere proposamenarekin bat egitera dei egiten diela. Jarraian, honako testua duen proposamena irakurri du:

- “1. Irurtzongo udalbatzak gogora ekarri eta ohoratu nahi ditu gure Estatu subiranoaren independentzia defendatu zutenak. Horrela, Tuteran, Lizarran, Burgin, Donibane Garazin, Garrisén eta beste hainbat lekutan gure askatasunaren alde borrokatu zutenak omendu nahi ditugu. Amaiurko gazteluan independentziaren alde beren bizi eman zutenen adorea inspirazio iturri hartuta, Nafarroak bizirik dirauela baieztatzen dugu.
2. Udal honek 1512ko konkista gogora ekarriko duten ekitaldiekin bat egiten du, eta ahal duen neurrian horiei babesa emateko konpromisoa hartzen du.
3. Udal honek ordezkaritza igorriko du 2009ko otsailaren 1ean Amaiurren eginen den ekitaldira, eta dei horrekin bat egiten dugula erakutsiko du.”

## **GALDE-ESKEAK**

Murugarren jaunak eskatu du Udalak txistularien taldea (gaur egun deseginda) osatu duten pertsonei nolabaiteko opari txiki bat egitea; izan ere, urte luzez jardun dira eskuzabaltasunez herriko jai eta kultur ekitaldi anitzetan.

Udalburuak proposatu du gaia Kultura Batzordeko hurrengo bilera batean aztertzea.

Aztergai gehiagorik ez dagoela, eta arratsaldeko zortziak eta berrogei minutu direnean, udalburuak bilkura amaitutzat jo du. Idazkari naizen honek bilkuraren Akta jaso, eta horren Egiaztapena egiten dut.